



Irene Caminosen erakustaldi aparta Andoaingo Kirol Astean



Irene Caminos aurreko larunbat arratsaldean, Goikoplazan.



Erakustaldi ederra egin zuen munduko txapelketan parte hartzen duen kirolariak.

“Kirola ere berdintasunean” izan da aurtengo lelo nagusia. Bike trialean, aldiz, parekorik ez du Caminos gazteak.

18 urterekin munduko trialeko emakume onenen artean dago Irene Caminos. Bizikleta menderatzeko duen trebezia erakutsi zuen beste behin, larunbat arratsaldean Goikoplazan. Tolosarra da, baina egunero dator Andoainera La Salle Berrozpe ikastetxeko ikaslea baita. “Kirol jarduera hau ezezaguna denez, horrelako erakustaldiekin egiten dakiguna era-

kusten saiatzen gara”, adierazi zion Aiurri Goikoplazan egin zen erakustaldiaren aurretik. Eta horixe izan zen, erakustaldia: Mugimendu eta saltoen bidez aurrean jarritako oztopoak igaroz, harriak igo eta jaitsiz, inguruko eskailera eta elementuetatik pasaz...

Gorka Susperregirekin batera saio ederra eskaini zuen. Plazara gerturatutako andoaindarrak harrিতuta eta beldurtuta egon ziren zenbait unetan; herritarrak lurrean etzan eta gaitetik salto egin zuten kasu.

Neska bakarrenetakoa da, baina oso maila onekoa: “Mutilen eta nesken arteko ezberdintasuna oso handia da kopuruari dagokionez. Gipuzkoa eta Eus-

18 urterekin munduko trialeko emakume onenen artean dago Caminos

kadiko Txapelketetan, adibidez, neska bakarra naiz”. Egoera horren aurrean, federazioari mutilen aurka lehiatzeko eskatu zion eta, egun, mutilen aurka lehiatzen da. Ez da horregatik atzean geratzen eta irabazten duenetan aurkariaren ezinegona nabaritzen du: “Neska batek irabazteagatik gehiago sumintzen dira”. Jarrera horiek ondo eramaten saiatzen da eta, gutxienez, sari berberak izaten dituztela gaineratu du: “Lehen mutilek sari handiagoak izaten

zituzten; orain, behintzat, parekatzen saiatzen dira”.

MUNDUKO KOPAN LAUGARREN

Hamabi urte zituela hasi zen Irene bike trial mundura gerturatzeko: “Hondarribian Bartzelonako lagun baten ikuskizuna ikusi, gustatu, eta aitari bizikleta eskatu nion”. 2011n hartu zuen lehen aldiz bizikleta eta dagoeneko elite mailara iritsi da. Iaz Espainiako Txapelketa irabazi zuen eta munduko Kopan ari da aurten. Azken proba Polonian izan da eta laugarren sailkatu zen. Geratzen diren lau jardunaldietan lehen seiren artean sailkatuz gero, munduko finalean parte hartuko du.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

“Gorputz eta arimaz” antzerkia, laster



Ikusmina sortu ohi du Udal antzerki tailerrak, ikasturtearen amaiera iristean. Ekainaren 19an emanaldia eskainiko du Saroben. Laster, beraz.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Axier Gaztañagari elkarrizketa



Andoaingo Buruntza auzuneko Gaztañaga sagardotegiak Foru Aldundiak sustatzen duen lehiaketa entzute-tsua irabazi du.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Gipuzkoako txapeldunak palan



Andoain herriak Deba gainditu zuen Herriartekoan.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

“Zapiartean” Egaperen dantza ikuskizuna, igandean Saroben

Egape dantza taldearen eskutik, dantza ikuskizun berritzailea.

Egape dantza taldea ez dago atseden hartzeko moduan, eta igande honetarako “Zapiartean” dantza eskainiko du Saroben. Bi saio eskainiko dituzte, lehena gonbidatuentzat (17:00), eta bestea herritar guztientzat (19:00) zabalik.

Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Sarobeko bulego ordutegian. Eta egun berean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Ikuskizun honetan 50 dantzari igoko dira taulagainera. Ordubeteko ikuskizunean, hamairu koreografia eskainiko dituzte. Ohi bezala, koreografia berritzaileak ikusi ahal izango dira, argi eta jantzi muntaia bereziarekin.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]



Saio irekia arratsaldeko 19:00etan izango da. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

ERRAUSTEGIA HIZPIDE URNIETAKO PLENOAN

Eztabaida suttsua, iraganean pizten zuen tentsiorik gabe

Urnietako Udal ordezkariak luze eta zabal hizketan aritu ziren aurreko astean, erraustegiaren harira. Aldeko eta aurkako argudioak azaleratu ziren, eta EH Bilduk egin zuen proposamena mahai gai-

nean geratu zen jeltzaleak eta sozialistak aurka agertu zirelako. Zabortegiaren arazoari irtenbidea eman behar zaiela uste dute aurkako botoa eman zutenek. EH Bilduk, ordea, ez du errauskailurik nahi.

Ondotxo dakite urnietarrek erraustegiaren gaia ez dela gaurkoa. Hamarkada bat atzera eginez, Urnietan egitasmo honen inguruan sekulako ekaitza sortu zen. Hainbestera izan zen, erraustegiaren aurka egindako lana izan zela UDA plataformak alkatetza eskuratzeko arrazoietakoa. Orduko hartan eztabaida politikoan zebiltzan gaur egun ere udaletxean garrantzia handia duten **Maribel Vaquerok** edota **Mikel Izagirrek**. Erraustegiaren egitasmoak, oraindik orain, eztabaida sakonak pizten ditu eta oraindik ere pil-pilean daude erraustegiaren aurkako mugimenduak. Hots, guraso talde batek sortutako Gurasos ekimena edota Donostian kanpaleku iraunkorra martxan jarri duen Gipuzkoa Zutik mugimendua.

Giro horretan aurreko asteartean EH Bilduk "Zubietako errauste plantari buruzko mozioa" aurkeztu ziren. Luze eta zabal aritu zuten eztabaidan. Bideoan ikusgai dago Urnietta.eus webgunean, eztabaida hori eta baita pleno osoa ere. Eztabaidan bakoitzak bere argudioak defendatu zituen, aspaldian gai honek sortzen zuen tentsioa eta ezin ikusia alde batera utzita. Eztabaida luzea izan zen, baina liskarrik gabekoa. Bozeramaile bakoitzak birritan hitz egiteko aukera izan zuen, eta kasu honetan alderdien bozeramaile izan ziren EH Bilduko **Mikel Izagirre**, PSE-EEko **Consuelo Frutos** eta EAJ-PNVko **Mikel Pagola**.

EH Bilduk erraustegia zaltzantzartzen du, hasteko eta behin bere dimentsioagatik: "Kontuan izanik zati birziklaezina, errefusa alegia, %10era ez dela heltzen, Gipuzkoan 2014an guztira 300.000 tona hondakin sortu baldin badira, erraustegira joan daitezkeenak 30.000 baino gutxiago izango dira 2020an. Hondakin horientzako eraiki behar al da 200.000 tona erre dezakeen



Maizteko Udal batzaraldiko irudia.

planta?". Arrazoi nagusia, ordea, ekologia eta osasun mailakoa da: "Dominique Belpomme minbizian aditu den kanterologo frantses ezagunak errauste plantaren aldeko apustua egitea minbiziarekin

bizitzeko arriskua onartzea dela dio. Guk ez dugu halakorik nahi, ez guretzat ezta gure seme-alabentzat ere; ez hemen, ez inon. Horregatik eskatzen diogu Aldundiari eta gai honetan zeresan handia duten man-

komunitateei eta Gipuzkoako Hondakinen Partxuergoari bazter dezatela Zubietako errauste plantaren proiektua eta aintzat har dezatela urnietar iritzia".

PSE-EEK mozioaren aurkako botoa iragarri zuen argudio ugari eskainiz. Atzera egin zuen azalpenak ematen hasi zenean, 2002-2016 plangintza onartu zen garaira. Izan ere, 2002an hondakinen kudeaketari buruzko foru araua onartu zen, eta horren baitan PI-GRUG bezala ezagutzen den plan orokorra. Hura bertan behera uzteko moduak salatu zituen: "2011ko hauteskundeetan gutxiengoan zegoen Aldundiak (Bildu) aldebakartasunez eta era antidemokratiakoan foru araua bertan behera utzi zuen, oinarrizko kontsentzu zabala zuena. Horren eraginez, zaborra zabortege publiko eta pribatuetan uzten ari gara". Alemaniako Berdeen ordezkariak 2010ean ingurugiroari buruzko kongresuan adierazi zuena gogora ekarri zuen, zeinean azpimarratzen zuten "erraustea urte luzez garatutako sistema dela, ingurugiroan duen eragin eskasa na-

EH Bilduk proposatu zuen mozioa ez zen onartu EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak aurka agertu zirelako

barmenduz". Sozialisten argudioen defentsaren amaieran, erakunde guztien erantzukizuna gogoan hartu eta Aldundiak bere garaian ezarritako plan integrala betetzeko deia luzatu zuen.

EAJ-PNVk ere mozioaren aurkako botoa iragarri zuen, mozioa proposamena bertan behera utziz: "Urte asko darabagu, gehiegi, lurralde honetan zaborren inguruan hitz egiten. Aukera ematen digu horrek, bakoitzak bere aldetik argudiotegi zabala lantzeko. Gauza batzuk aipatuko ditut. Izan dira, dira eta izango dira alderdien arteko iritzi kontrajarriak".

Europar 1990-2015 urteetan teknikoki eta teknologikoki errauskailuek izan duten garapena hizpide izan zuen Pagolak, "zerura bidaltzen den dioxina kopurua milesima batera murriztu dutela" adieraziz. Konparaziora, askoz dioxina gehiago sortzen duen zerrrenda aipagai izan zuen: "Trafikotik hasita etxeetako kalfakzioaraino, egiten diren kremazioak, zentral elektrikoak,... horiek guztiek ikaragarriko aldearekin dioxina askoz ere gehiago botatzen dute zerura. Alemanian egindako ikerketa da".

Zabortegiari irtenbidea emateko erraustegiaren beharra iradoki zuen, azkenik: "San Markos itxi zenetik, hiru zabortegeak bukatu dira. Gipuzkoako zabortegearen arazoari irtenbidea emateko dagoeneko berandu gabiltza".

Lehen interbentzio nagusitik abiatuta, erreplikarako aukera izan ziren. Eztabaida hori guztia ikusgai dago orain urnietta.eus webgunean.

PLENO OSOA BIDEOAN IKUS DAITEKE



Urnietako Udalak pleno osoa webgunean ikusgai ipini du, Youtubera igotako bideoaren bitartez. Eztabaidagai ugari izan ziren baina zeresan handiena eman zuenetakoa erraustegiarena izan zen. Pleno-



ak ordu bete egin zuten, erraustegiari buruz eztabaidatzen hasi ziren. 1:05:00 minututik aurrera, eta ordu erdiz Pagola, Izagirre eta Frutosen arteko eztabaida ikus daiteke.

Eskaintza oparoa Gaztelekuan, Urnietako gazteei zuzenduta

Jarduerez beteriko uda hasiera, gazteentzat



Urumea aldean piraguan ibiliko dira, Udabentura egitasmoaren baitan.

Aurtengo berrikuntzen artean, "Street Art" muralaren margo-keta nabarmendu beharra dago. Askoren artean jarduera bat izango da ekainaren 27an abiatu eta uztailearen 22ra arte luzatuko dena. "Lehenengo astean Gaztelekuan bertan edo inguruan egingo ditugu ekintzak", azaldu du **Unai Esnal** hezitzaileak. Ekintza bereziekin hasiko dira, eta tailerrak izango dira nagusi: sukaldaritza tailerra, eskulanak, ur jolasak, street futbola...

Bigarren astean, ordea, Urnietatik atera eta inguruko herritarra joango dira. Hala, uztailearen 4tik aurrera irteera anitzak egingo dituzte; skate parkera, igerilekura eta zinema, besteak beste. 2000 eta 2001. urtean jaiotakoek, gainera, paintball egiteko aukera ere izango dute. Asteari amaiera emateko, uztailearen 8an Santa Klara irlara joango dira guztiak, egun pasa.

Urtero bezala, **Udabentura** egingo dute hirugarren astean eta honakoak dira antolatutako ekintzak: surfa Zurriolan, ekitazioa Lasarten, piragua Urumean, Orienteering eta Slackline Buruntzan, eta, azkenik, eskalada eta hondartzara irteera Donostian.

Azkeneko astean, uztailearen 18tik 22ra, murala margotuko dute: "Graffitigile bat etorriko da murala margotzera eta, bide batez, gazteei azalpenak ematera". Hala, murala margotzen ari den bitartean, gazteek



Udabenturarekin Santa Klara irlara egun pasa joateko asmoa dute.

Uztailearen 18tik 22ra murala margotuko dute: "Graffitigile bat etorriko da murala margotzera eta, bide batez, gazteei azalpenak ematera"

ere grafiti tailerra izango dute beraien obra margotu ahal izateko.

Tailerrak hogeita gazteentzat izango dira, bi taldetan banatuta; astelehen eta asteazkenean bata, eta astearte eta osteguneko besteak. Ostiralean, guztiak elkarrekin murala margotuko dute grafiti egilearen laguntzarekin. Gainera, aurrera begira tailerretan egindako obra horien erakusketa bat egingo dute.

Eskaintza asteka antolatuta dagoen arren, izen-ematea

egunka egitea ahalbidetuko dute aurretik: "Aste guztiko izen emateak ez dira eraginkorrak; beraz, parte hartzea erraztu nahi diegu egunka izena emanez", adierazi dute.

IZENA EMATEKO EPEA, DATORREN ASTELEHENEAN HASITA

Datorren astelehenean hasi eta ostegunera bitarte (Ekainak 13-16) jardueretan izena emateko aukera izango da Gaztelekuan bertan, arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Ordainketa izen ematearekin batera egingo da eta gazteek ekintza bakoitzeko baimena eraman beharko dute.

Ekintza hauetan guztietan plazak mugatuta direnez, Urnietako nerabeek lehentasuna izango dute; beharrezkoa den kasuetan, ordea, zozketa egingo dute.

"Gorputz eta arimaz" antzerki tailerraren eskutik



Udal Antzerki tailerrak ikasurtean zehar prestatutako jendaurrean eskainiko du San Juan jaien atarian. Ze-

hazki esanda, ekainaren 19an arratsaldeko 19:30ean hasita. Sarrerak 3 eurotan salgai daude.

Argazki erakusketa Lekaion

Datorren asteazkenean Argazki rallyko sari banaketa ekitaldia egingo dute Lekaion, arratsaldeko

19:00etan hasita. Argazkiak, ohi bezala, ikusgai izango dira ekainaren 13tik 24ra Lekaion bertan.

Kultur astearen atarian



Gerezi egunaz gozatzeko irteera antolatu dute Nafarroako Milagros herrira.

Denda Berrik datorren astean hasiera emango dio Kultur Asteari, hainbat jarduerekin. Horra egitaraua:

Ekainak 16, osteguna

17:00 Mahai jokoak, toka.

Ekainak 17, ostirala.

18:00 Dantzaldia.

Ekainak 18, larunbata

09:20 Bus irteera Kioskotik Donostiako hiru ondartzak lotzen dituen ibilaldi neur-tuan parte hartzeko. Ondoren bazkaria Amaran.

Ekainak 19, igandea

08:00 Irteera Nafarroako Milagros herrira. Gereziaren festa ospatzen da bertan. Bazkaria hango jatetxe batean.

Ekainak 21, asteartea

18:00 Bingo saioa.


Ekainak 22, asteazkena

18:00 "El peli" antzerkia.

Ekainak 23, osteguna

18:00 Dantzaldia Iribarren orkestrarekin.
22:00 San Juan sua.

Gipuzkoa Zutik-ekin bat



Aurreko larunbatean paella jatea antolatu zuen Poxta Zahar elkarteak. Egundorretan hainbat kidek taldeko argaz-

kia atera zuten, Donostian erraustegiaren aurka kanpalekua antolatu duen mugimenduari elkartasuna adierazteko.

HAURREN EUSKAL JAIALDIA

Folklorearen hiriburua

Tolosaldea (Loatzo Musika eskola), Biana, Askain, Zarautz, Berastegi eta Kanpezuko dantza eta musika taldeak aritu ziren Andoaingo kaleetan zehar, eta horiengana bertakoak batu ziren Susana Cenci-

lloren musika eskola, Ikastolako trikitilariak eta Urkiko dantza taldeak. Goikoplazan ere saio ikusgarriak egin zituzten, Katramila taldeak eta Elena Marcosek aurkeztu zituzten bi emanaldietan.



Urki taldeko zenbait dantzarik salotik sailora hartu zuten tartea argazkilariren aurrean jartzeko.



Andoaingo trikitilariak Goikoplazatik behera, kaleak alaituz bidean.



Loatzoko musika eskolako txistularien taldeak, Jon Ander Belamendiak gidaturik, Kanpezu eta Biana-k taldeak dantzan jarri zituzten.



Susana Cencillok zuzentzen duen Soinuak musika eskolak ez zuen hutsik egin urteroko folklore hitzordura.



Maialen Lopez de Munainek eta Leire Iturraldek Kale Nagusian dantzatu zuten gainerako taldekideekin batera.



Euskal Herriko dantza mota anitzekin gozatu ahal izan zen Andoaingo kaleetan barrena, egun osoan zehar.



GAZTAÑAGA SAGAROTEGIAK IRABAZI DU FORU ALDUNDIAREN GIPUZKOAKO XV. SAGARDO LEHIAKETA

Sagardo onena, Andoaingoa

Balio handiko saria jaso berri du Gaztañaga sagardotegiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duena. Eta ez bakarrik sariak ospe handia duelako, aurtengo deialdira hogeita hemeretzi sagardote-

gik izena eman dutelako baizik. Inoizko parte-hartzerik handiena izan da. Finalera Aburuza, Akarregi, Alorrenea, Altzueteta eta Izeta sailkatu ziren ere. Sari nagusia, ordea, Gaztañagak lortu du.



Gaztañagatarrak Aldundiko ordezkari Xabier Arrutirekin batera.

Bolada onean daude gaztañagatarrak, azken hiru edizioetan birritan irabazi baitute Gipuzkoan antolatzen den sagardo lehiaketa garrantzitsuenetakoa, Foru Aldundiak antolatzen duena. Ospea bazuen lehendik, eta lehiaketa horretako sei finalistetako izatea geroz eta sagardogile gehiagoren helburuen artean dago.

Apirilean epaimahaiaik parte-hartzaileen sagardotegieta-kupeletatik hartu zituen laginak eta horiek Fraisoroko laborategian aztertu zituzten. Sagardotegi bakoitzak aukeratzeko zein upeletatik hartu behar zen sagardoa. Epaimahaiaren erabakiz, lehen saria Andoainera etorri da. Buruntza auzunera, zehazki.

Aurtengoak 2014koaren antza izan du, orduko hartan ere finalera iritsi baitziren Altzueteta edota Aburuza sagardotegiak. Meritu handikoa da finalisten artean egotea, sagardogileen parte hartzea urtez urte handituz doala ikusita. 2014an 30 aurkeztu ziren lehiaketara, 2016an 39. Parte hartzea handitzeak zaildu egiten du aukeraketa, eta horrek berak sariketa garrantzitsuago bihurtzen du.

Aiurri astekaria saria jaso eta biharamunean harremantant jarri zen Axier Gaztañaga rekin. Aita alboan zuela, Axier semeari txapela jantzi zion Xabier Arruti Nekazaritza eta Landa garapenerako zuzendaria-riak.

Poz ikaragarria jasoko zenuen larunbatean, ezta? Zer sentitu zenuen txapela janztean?

Axier Gaztañaga. Bagenekien puntuazio ona eman zuela Fraisoron baina lehen saria eskuratzea ez duzu inoiz espero.

Urduri jarri al zineten?

A.G. Ni bereziki, bai. Hirugarren eta bigarren sariak eman zituztenean txapela eskuratzea zaila zela pentsatzen ari nintzen. Ez ziren une onak izan, eta gero aldiz, guztiz kontrako sententzioak. Gure izena esan zutenean, hasiera batean ez nuen sinesten.

Horrelako saria jasotzeak zer esan nahi du zuretzat?

A.G. Lanean eta ikasten jarraitu behar dugula, horixe da nik buruan dudana. Hau ez da hemen amaitzen, jarraitu beharra dago. Nahiz eta produktu berdina ibili, urte bakoitza oso ezberdina da. Análisiak ez dira beti berdinak eta horrexegatik urtez urte sagardoa lantzen jarraitu behar dugu. Ikasiz eta ikasiz, horrela lan egin beharra dago.

Erronka berriei ekitea ekar al dezake saria eskuratzeak?

A.G. Larunbatean saria jaso eta dagoeneko igandean jendea deika genuen, irabazlearen sagardoa eskatuz. 2014an irabazi genuenean ere, salmentetan hazkundera nabaritu genuen.

Ekoizpenari dagokionez, ia 200.000 litro ekoiztu ditugu aurtentzen, eta ea piskanaka goruntz goazen.

Urte ona daramazue, Santa Krutz jaietakoan ere irabazle izan zinetelako.

A.G. Halaxe da, bai. Baina langintza honetan segi egin beharra dago.

Zorionak Axier.

A.G. Eskerrik asko.

FORU ALDUNDIAREN SAGARDO LEHIAKETA. XV. EDIZIOA

- **Finala:** Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Ekainak 4, larunbata.
- **Lehiakideak:** Gipuzkoako 18 udalerritako 39 sagardotegi.
- **Finalistak:** Aburuza, Akarregi, Alorrenea, Altzueteta, Gaztañaga eta Izeta.
- **Epaimahaikideak:** Aldundiko Fraisoroko dastagunean ikasi eta diplomadun diren dastatzaileak.
- **Aztergaiak:** Aurtengo sagardotetan 15 parametro neurtu dira, bai-

na analitika fasean lau bakarrik hartu dira kontuan: azidototasun lurrunkorra, azukrerik gabeko guztirako estraktu lehorra, metanola eta glukosa-fruktosa.

• **Lagina:** Sagardotegi bakoitzak aukeratzeko zein upeletatik hartu behar zen sagardoa eta bakoitzetik 13 botila hartu ziren.

• **Sailkapena:**

1. Gaztañaga: 74 puntu. 3.000 euro eta txapela.
2. Altzueteta: 70 puntu. 1.500 euro.
3. Aburuza: 65 puntu. 1.000 euro.

ANDOAINGO IV GARAGARDO AZOKA



**EKAINAK
16-17-18-19**

ARRATE FRONTOIEAN












Osteguna 16
18:00 - Azoka irikiera
19:30 - Pilota desafioa

Ostirala 17
18:00 - Azoka irikiera
20:30 - Iturzaeta Memorialeko

Larunbata 18
13:30 - Azoka irikiera
16:00 - Zesta kinielak gazteak
18:00 - Zesta partidu profesionalak

Igandea 19
13:30 - Azoka irikiera
**Larunbata eta Igandean
bazkariak emango dira**

Antolatzaileak: Babesleak:
ZAPIAIN Aiurri
DISTRIBUCION, S.L.

*Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera
eta izan sarria irabazteko aukera!*



Andoain




Urnieta



Lasarte-Oria



Hernani



Usurbil



Astigarraga

*Dakizuna erabili
ez dakizuna ikasteko*



BURUNTZALDEA

www.buruntzaldea.eus

GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOETXEA	Juan Bautista Erro 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leitza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
	Urbietza 7	943 55 34 16
LAGUNAK	Karobieta 1	943 33 14 19
OTAMENDI	Izpizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
LASARTE	Nagusia 5	943 37 06 92
MUGICA	Ganbo 1	943 36 22 75
Urnietza		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO ATERATZEA NAHI?

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

AZKEN TEKNOLOGIAN MURGILDUTA IRUDIEKIN JOLASEAN



HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietza eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

Drain

gidabaimena EUSKARAZ

ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA 10 SARI BURUNTZALDEAN: TEORIKOAREN BALIOA (400 € GEHIEZ)

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIEN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zoketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA

ELKARRIZKETA

“Euskara eraman behar dugu jendearengana”

Tokiko euskarazko komunikabideen sorkuntzan eta sustapenean bide luzea du egina Mikel Irizarrek. Erreferentzia nagusietakoa zen. Ia urtebete egin du Gipuzkoako Foru Aldundian, eta kargu pu-

blikoetan espezialista ez dela aitortu arren, orain arteko lanarekin gustura dago. ‘Euskararen herria’ sortzeko “sekulako aukera” da goela uste du.

Erretiratu eta bitzita patxada-tsuaz gozatu beharrean, euskararen alde lanean jarraitzeko hautua egin zuen iaz uztailean Mikel Irizarrek (Ormaiztegi, 1954), “ilusioak eraginda”. Gipuzkoako Foru Aldundian Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari izateko eskaintza “horren ilusionagarria” izanik, erronkari heldu eta 2015etik 2019rako plan estrategikoaren lehen urratsak ematen ari dira orain. Euskalgintzak bizi duen gogoeta uneaz eta horren gertutik ezagutzen dituen tokiko euskarazko komunikabideez egin du berba, besteak beste, Tokikomekin, luze eta zabal.



Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendaria da.

Gogoeta asko dabil azkenaldian Euskalgintzan: Topagunearen Berrikasi Berrikasi dokumentua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren Eta hemendik aurrera zer?, Gipuzkoako Foru Aldundia bera...

Mikel Irizar. Topagunearen dokumentua han eta hemen aurkeztu da, eta esango nuke eragin dezente izan duela, bertan proposatu genituen ideia batzuk oso hedatuta daude egun. Jaurlaritzarena mugari bat da, hizkuntza politikari dagozkion kontzeptuak eta ikuspegia birformulatu egin ditu parte hartze eta adostasun handiarekin. Aldundian Euskalgintza eraldatzeko palanka bila gabiltza, eta badira gogoeta gehiago ere. Euskararen biziberritze prozesua, bidea egin ahala, bidegurutze batera iritsi da, eta oso aktibo gaude aurrerabidearen bila. Momentu itxaropentsua da, ilusionagarria. Hori bai, komeni da ekimenak ordenatzea eta elkar aintzat hartzea, ez gaitezen hasi toki bakoitzean gurgipila asmatzen.

Zer egin daiteke diferente eraginkorrak izateko? Gogoetatik ateratako zein ikasgai nabarmenduko zenuke?

M.I. Gogoetan zehar asko aipatu da Euskalgintzak duen ireki beharra.

Barrura begirako inertzia handia da, baina, bitartean, gizartearen gehiengo bere bidean doa eta hor euskara bizi indarra galtzen ari da. Jendea euskarara ekarri baino gehiago, euskara eraman behar dugu jendea dagoen esparruetara, aliantza berriak eraiki behar dira gizarteko eragile eta dinamika ezberdinekin, euskarak toki handiagoko har dezan, ikusgarriago izan dadin. Hori, behintzat, argi geratu da.

EUDEL izango da euskarari bultzada emateko tresna berria. Hautatu berri den zuzendaritza taldean EAJ, PSE-EE eta EH Bildu daude. Zertan lagunduko du tresna berri horrek, zehazki?

M.I. Akordioa oso garrantzitsua izan da Euskal Autonomia Erkidegorako, Eudel normalizatzen duelako eta euskararen konpromisoa indartzen duelako. Horrez gain, nafar udalen federazioan ere indar euskaltzaleak dira nagusi eta Iparraldean udal elkargoa abiatuko da urte hasieran. Sekulako aukera daukagu udalgintzatik euskararen herria sortzeko, elkargo hauen artean sareak eta lankidetzak eraikitak. Urrats handiak egin daitezke norabide horretan denbora tarte laburrean.

Zelan ikusten dituzu euskal heda-

bideak, kontuan izanik lehen haitan zeniharduela eta orain Aldundian?

M.I. Hedabideak bidegurutzean daude mundu osoan, eta baita gureak ere. Informazioa eta aisialdia kontsumitzeko ohiturak erabat aldatzen ari dira eta hedabideak horretara moldatu behar dira. Euskal hedabideetan badago kezka, eta horregatik sortu ziren Tokikom eta Hekimen, lankidetzak esparruak indartzeko. Sinetsita nago lankidetzak hori dela gako gure hedabideentzat, ez bakarrik irauteko, baizik eta beste hizkuntzetakoen aurrean nagusitzeko. Arriskuak aukera bihurtu behar dira, auzolanean indarra biderkatuta. Eta hori berdin ikusten da sektorean egon edo Aldundian.

Euskarazko komunikabideen azken 30 urteetako bilakaera gertutik jarraitu duzu; protagonista izatea ere tokatu zaizu, neurri handi baten. Zer nabarmenduko zenuke bilakaera horretan?

M.I. Ni tokikoetan aritu naiz, bereziki, eta hauen historian badago lorpen bat nabarmen- zeko: euskaraz jardunda irabaz daiteke. 1990eko hamarkadan euskarazko komunikabideak erabat nagusitu ziren tokiko informazioan, berritzaileak eta errotuenak zirelako.

“Jendea euskarara ekarri baino gehiago, euskara eraman behar dugu jendea dagoen esparruetara, aliantza berriak eraiki behar dira gizarteko eragile eta dinamika ezberdinekin”

Eta berriro ere irabaz dezakete lehia, berritzaileak eta errotuenak izanda. Hori bai, irekitasun ariketa handiak egin behar dituzte herritar guztien- gana iristeko, molde berrietara egokitzeko eta lankidetzan jarduteko.

Euskarazko hedabideak, eta tokikoak, bereziki, ondo moldatu dira teknologiaren eta joera berrien azken uholdera?

M.I. Ez daude atzean, baina joan daitezke aurrerago. Internetekoak jarri behar dute erdigunean, hausnartu paperaren funtzioaz, birpentsatu telebista eskaintza (EITB barne), herritar- rakk bihurtu informazio iturri eta protagonista, auzolanean prestutasuna garatu... Euskarazko hedabideetan badira 1.000 langile inguru, eta guztiak antolatzen baditugu molde berrietan gutaz eta gure hizkuntzan jarduteko, ez dago munduan horrekin lehiatu lezakeen komunikazio talderik. Aldi berean, bada kontu osagarri bat, hau ere funtsezkoa. Ikus-entzuzkoen kontsumoa gero eta handiagoa da gazteen artean eta batez ere Internet bidez gauzatzen da. Hor lehiatzeko aukera eman behar zaie gazteei edukien sortzaile bihurtzeko; eta aldi berean sustatu behar da hori euskaraz egitea eta euskal kanalen bidez banatzea. Esparru honetan ere burujabetza maila bat beharrezkoa dugu.

Sare sozialen indarraren eta Interneten aukera berrien aurrean, ohiko hedabideen, tokikoak barne, eragin-ahalmena txikitu egin al da? Nola egin aurre erron-

ka horri? Eta hori guztia aintzat hartuta, badute etorkizunik tokiko hedabideek?

M.I. Esango nuke euskarazko hedabide guztiak direla, nolabait, tokikoak, gure gaiak euskaraz jorratzen dituzten neurriak ditugu ezinbesteko. Gutaz eta euskaraz jardutea oso eginkizun garrantzitsua da, inor ez zaigu kanpotik etorriko hori egitera. Horregatik, euskal hedabideak indartzeko komunitatearekin uztartu behar dira, eta gizartean errotu, garapen komunitarioarako tresna bihurtu, funtzio sozial argia bete behar dute. Euskal Herriaren oinarrian euskararen herria garatu nahi dugunok helburu hau jarri behar dugu beste guztien gainetik eta sustatu hiztun komunitate ireki bat, hiritar kontziente eta aktiboz osatua, munduan sendo kokatuko dena bere nortasuna erakutsiz. Eta lan horretan funtsezkoa da komunikazioa, gure interes komunak sendotzeko eta komunitate sentimendua indartzeko. Beraz, norabide bakarreko hedabide izateari utzi eta bi norabidetan joan-etorrian ariko diren komunikabideak behar ditugu, herritar- rakk abiapuntu eta helmuga izango dituen komunikazio sare sozial trinkoa. Ametsa dirudi, baina eskura daukagu, egin liteke.

Erretiroaz gozatzeko aukera izanda, nolatan ordu asko eskatzen dituen politika zereginetan sartu?

M.I. Ilusioak eraginda. Ez dago beste sekreturik. Ondo bizitzeko erabateko patxada nuen, ekonomikoki ere bizitza egin da nuen erabat –kalkulatu dudanez, Donostiarako joan-etorriekin parra egiten dut, gutxi gorabehera– eta karrera politiko bat abiatzeko berandutxo da honezkerok... Kontua da egin zidaten eskaintza oso ilusionagarria izan zela eta ezin izan nuela ezezkorik eman. Zorionez, ez dut ilusionatzeko gaitasunik galdu oraindik.

Igandera bitarte ekitaldi ugari antolatu dituzte

Extremadura aldeko ospakizunak Andoainen

“Nuestras voces se alzan, nuestros cielos se llenan de banderas, de banderas verde, blanca y negra”. Extremadurako ereserkiaren hasierako bertsoa da, aurreko larunbatean **El Miajon de Castuos** elkartearen entzun ahal izan zena. Bospasei hamarkada atzera, sorterrria utzi eta bizimodu berri baten bila abiatu ziren Cáceres eta Badajoz aldeko pertsona ugari. Buruntzaldera iritsi ziren haietako asko, eta bertan errotu eta familia berriak osatu zituzten. Andoainera iritsitako haiek eta bertan sortutako ondorengo belaunaldiek, urtero, udaren atarian kultur astea antolatzen dute.

Aurreko larunbatean hasiera eman zioten ekitaldi instituzionalarekin, zeinera herriko gizarte eta politika mailako eragileak gonbidatu zituzten. Ekitaldi ezberdinak egin eta gero, astebururako hitzordu gehiago prest dituzte. Ikus, Agendan.



“Gritemos todos en libertad: ¡Extremadura tierra de paz!” dio ereserkiak.



Han sortutakoak eta bertan jaiotakoak, guztiak dira andoaindarrak.

Bigarren edizioa Behemendi eta Udalaren eskutik

Lore eta landare azoka

Aurreko larunbatean Juanita Alkain plazak ez ohiko itxura hartu zuen. Lorez eta landarez apaindutako hamaika postuekin, itxura ederra zuen. Azokaren hasiera apala izan bazen ere, orduak aurrera joan ahala herritar ugari bertaratu zen loreak edota landareak ikusi eta kasu askotan erosketa egitera. Behemendik Udalarekin batera antolatu duen bigarren azoka izan zen. Herritarren erantzuna ikusita, datorren urtean hirugarren edizioa ospatzeko arrazoirik ez da faltako.



Lore eta landare azoka Juanita Alkain plazan.

MUSIKA DOINUAK SANJUANETAN



Ekainak 23, osteguna
23:15 Nemux Nafarroa Plazan.

Ekainak 24, ostirala
23:00 Zo-Zongoren “Psycho-Clown” ikuskizuna: Perkusioa eta piroteknia ibiltaria Goikoplazan eta Nafarroa plazan.

23:30 Tutan Come On eta Sociedad Alkoholika zuzenean Nafarroa plazan.

Ekainak 25, larunbata
22:45 Villa Hidalgo” mariatxi taldea Goikoplazan.

23:30 Esne Beltza eta Laket zuzenean Nafarroa plazan.

Ekainak 26, igandea
22:30 Bakartxo & Joseba dantzarien erakustaldia Goikoplazan: tangoa, salsa, funky, kizomba, sabel dantza eta zumbafusioa.

Ondarreta ikastetxearen ikasturte amaierako jaia



Ondarreta ikastetxeak aurreko larunbatean ikasturte amaierako jaialdia egin

zuen. Pintxo lehiaketa, dantzaldia, jolasak... festa boro-bila izan zen.

Mintzodromoa euskararen erabilera areagotzeko



Ondarreta ikastetxeak ere Udalarekin eta AEK euskaltegiarekin batera Mintzodro-

moaren edizio berrian parte hartu zuen, euskararen erabilera areagotzeko.



Iker Valleren erakusketa ikusteko azken egunak



Larunbata bitarte Bastero kulturguneko erakusketa gela Iker Valleren erakusketa ikusteko aukera izango da. Andoaindarrak, teknika ezberdinak erabilia, hainbat lan ikusgai ipini ditu. Basterokoa amaituta, erakusketa berria zabalduko dute Urigainen.

ERAKUSKETA URIGAINEN

Datorren astean ikastaroetako ikasleek egindako lanak ikusgai ipiniko dituzte: Pintura, egur taila eta eskulanak.

Sanjuanak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ere ikusgai ipiniko dituzte.



Eskualdeko partaidetza "Euskal Herria erronka"n



Jokin Lizeaga lehen postuan zihon, erretiroa hartu zuen arte.



Ainara De Miguel urnietarra sorterrria duen Leitzan, Lizeagarekin batera.

67 kilometroko erronka zailari heldu zioten 683 lasterkarien artean **Julen Martinez** izan zen 7:03:23 denborarekin onena. Emakumezkoetan, berriz, **Oihana Kortazar** 7:55:02 denborarekin eta aurrez ezarria zegoen marka onena 7 minututan jaitziz. **Jokin Lizeaga** urnietarra hasiera hasieratik nagusi izan bazen ere, 55. kilometroan lasterketa utzi beharra izan zuen orkatileko minez.

HELMUGARA IRITSITAKOAK Urnieta

- 07:58:17 Jon Urdangarin
 - 08:41:11 Mikel Legarreta
 - 09:50:38 Iñaki Narbarte
 - 09:52:40 Tomax Pellejero
 - 12:31:31 Ainara De Miguel
- *Jokin Lizeaga erretiratuta.

Andoain

- 09:38:27 Kauldi Rezola
- 09:45:04 Urtzi Fernandez
- 10:21:59 Aratz Arruti
- 11:14:34 Iker Beloki

Trial Bike erakustaldia Andoaingo Kirol Astean



Ikusleak lurtean etzanarazi eta gainetik salto egin zuten.



Gorka Susperregirekin batera saio ederra eskaini zuen Irene Caminosek.

Zesta punta Arraten

Zesta Puntako jaialdi bikainak antolatu dira datozen bi asteburuetarako Andoainen, Xistera proiektuak antolatuta. **Igor Lizasoain** Gaztelekuko bultzatzailea eta **Alain Garcia** pilotariak azaldu digute zertan den Xistera proiektua eta zer nolako ikuskizuna eskainiko digun Arrate pilotalekuan.

Zer da Xistera proiektua?

Igor Lizasoain: Xistera Euskal Herriko zesta puntako eskola guztiak biltzen dituen elkartea da; hogeita bost bat izango gara. Azken urtetan klub guztiek indarrak elkartu egin ditugu, eta norabide berean jarri gara lanean. Hori dena hausnarketa sakon baten ondorioa izan da, honakoa: zesta punta gainbehera doa eta biziberritu beharra dago.

Zein izan da egin duzuen azterketa?

I.L.: Argi ikusten genuen zesta punta Euskal Herrian oso kirol garrantzitsua izan dela, munduan gehien zabaldu den euskal kirola, baina egun, dekadentzia egoera bizi duela. Esaterako, Ameriketara lehen 600 pilotari aritzen ziren jokatzeko, eta egun 80ra justu-justu iritsiko dira. Eredua aldatu beharra zegoela ikusi genuen, proiektu indartsu eta bateratu bat behar zela indarberritzeko.

Zeintzuk dira Xistera proiektuarekin erronka gisa jarri dituzuen helburuak?

I.L.: Lau nagusiki. Gazte eta afizionatuei begira, sustapen lana egin nahi da. Eskolak indartu nahi dira, gaztetxoek zesta punta ezagutu eta proba dezaten. Kirol eskolako programazioetan ere zesta punta kontuan har dezaten saiatzen ari gara. Bigarrenik, afizionatu mailan zirkuitu iraunkor bat sortu nahi da. Izan ere, gazteek jokatzeko baina erreferentziak falta zaizkie, Amerika oso urrun geratzen zaie. Euskal Herrian bertan, afizionatu onenekin han eta hemen antolatutako lehiaketek eragingo luketen motibazioa falta zaie. Hirugarrenik, emakumeak ere zesta puntara erakarri nahi ditugu; badira pilotari bakar batzuk, baina oso sakabanatuta daude eta ez dute elkarren be-



Markel Rodriguez, Alain Garcia, Igor Lizasoain, Aimar Suarez eta Unax Malo.

Ekainak 12, igandea
09:30 Gaztetxoak
11:00 Gazteak finalerdia
12:00 Nagusiak finalerdia

rririk, maiz antolatutako diren topaketek lagundu dezakete horretan. Azkenik, komunikazioaren arloa sendotu nahi dugu, euskal jende askok apenas ezagutzen baitu zesta punta egun; komunikabideak, sare sozialak... eta bestelako teknologia modernoak landuko dira serio; adibidez, Xistera proiektuak antolatzen dituen topaketetako final guztiak streaming sistemari esker ikusi ahal izango dira internetez, xistera.eus web orrian sartuz gero.

Emaitzak dagoeneko ikusten ari zarete?

I.L.: Proiektuaren inguruan ikuskizuna eta ilusioa pizte lortu dugu. Mutrikuko klubak, esaterako, berrogei gazte dauka gaur egun. Etxera etorrita, Gazteleku klubaren kasuan, esan daiteke gaintzen ari gara azken urtetan bizitu izan dugun hutsunea; dagoeneko hamar bat gazte etortzen zaizkigu zazpi urtetik hamabost urte bitartekoak.

Zer eskainiko du asteburu honetan?

I.L.: Gazteen arteko topaketak eta afizionatuen mailako txapelketak uztartuko dira. Xistera zirkuituaren bigarren programa izango da Andoain-

goa, Durangon egin baitzen estreinaldia. Alebin eta benjaminen arteko kuniela saioak egingo dira, eta ondoren, 22 urtez behekoen eta nagusien arteko final erdiak larunbat honetan, eta hurrengo larunbatean finalak. Txapelketetako finalerdiak Ameriketara ohikoak diren kunielaren sistemarekin jokatu dira; zortzi aurrelari eta zortzi atzelari, hamabost tantutara, eta lehenengo bi sailkatuak finalera. Era horretan, finalerdiak eta finalek zesta puntako bi jokamolde erakutsiko dizkigute: bata oso dinamikoa, ikusgarria, koloretsua... eta bestea tradizionalagoa, ohikoagoa egiten zaiguna guretzat.

Andoaindarrei deialdia berezia egingo nieke Arratera gerturatu daitezten. Herri honek betidanik eduki du zesta puntarako tradizioa eta ziur nago erantzungo duela.

Alain, zeu nagusien txapelketan parte hartzeko zara. Nola ikusten duzu Xisteraren proposamen berritzailea?

Alain Garcia: Oso interesgarria iruditzen zait. Pizgarria izan da berriro gogoz entrenatzeko, eta lehiaketetan parte hartzeko. Izan ere, oso urrun ikusten dugu Ameriketako aukera hori, eta ohikoak diren txapelketa ofizialez gain, ez zaizkigu egokitzen lehia gehiago. Horrexegatik, Iparraldean antolatzen diren torneotara joan behar izaten dut maiz. Xisterak ezarri duen zirkuitu berri honekin, Euskal Herrian zehar ibiliko gara asko.



KIROL ALBISTEAK

Andoain txapelkun palan, Gipuzkoako Herriartekoan



Saridunak finalistekin, Andoaingo alkatearekin eta Federazioko lehendakariarekin.

Ezagun da Herriartekoan Andoaingo taldea indartsua dela, eta beste behin ere nagusitasun hori erakutsi dute. Igandean Debaren aurkako finalean Gipuzkoako txapelketa lortu zuten. Lete, Rekalde, Altuna eta Iradiri zorianak!

Andoain taldeak Deba garaitu zuen finalean

Paletan **Iradi-Lete** bikoteak 35-16 irabazi zuen Etxeberria-Beitiaren aurka.

Pala motzean, berriz, **Altuna-Rekalde** andoindarrek 40-28ko emaitzaz garaitu zituzten Lopez eta Sanchez.

Era horretan Andoaindarrek Gipuzkoako txapelketan azken urteetan lortutako bosgarren txapela irabazi zuten.

Jon Eskudero Kaliforniako Bakersfieldd jaialdian

Amerikako Estatu Batuetatik iritsi berri da Jon Eskudero Gazteleku pilota eskolako andoindarra. Bakersfielddeko (Kalifornia) euskal festetan erakustaldi moduan antolatu diren eskuzko pilota partidetan parte hartzen aritu da **Aitor Gorrotxategi**, **Erik Jaka** eta **Julen Urruzola** asteasuarrekin batera. Jaka eta Urruzola Aspeko pilotari profesionalak dira.

Jokatu zuten lehenbiziko partida oso lehiatua izan zen:

Jaka-Gorrotxategi 25
Eskudero-Urruzola 24

Bakersfield Basque Festivalaren 44. edizioa ari dira ospatzen egunotan. Estatu Batuetan maiatzetik aurrera urtero egin ohi diren euskal jaietatik zaharrenetakoa da Bakersfiel-



dekoa. Euskal tradizioko ekitaldiak dira nagusi, eta Euskal Herriatik joandako emigranteen bilgune bihurtu ohi da. Denetik antolatu ohi da bertan: euskal dantzak, erromeriak, piknikak... Eta nolaz ez, pilota saioak. Maila pertsonalean, bidaia

oso aberasgarria gertatu zaiola adierazi dio Aiurriri Eskudero. Gogoko duen kirola hango euskaldunekin gozatzeaz gainera, euskal jatorriko amerikarrek harremanak estutze-ko eta horien bizimoduaz jabetzeko aukera eduki baitu.

Areto futbol txapelketa

Ekainak 12, igandea. Finalak Allurralde kiroldegia

- 10:00 | 3-4. postua
Aure Maiton-Txalaka
- 11:00 | B finala
Hogar Extremeño-Academia GF
- 12:00 | A finala
Keler- Centro Extremeño
*Finalaren kasuan, penaltietara.



Igeriketan murgiltzeko epea zabalik dago



Buruntzaldea IKT taldeak 2016-2017 denboraldirako izen ematea zabaldu du, "zure haurrak igeriketa taldeko partaide izan nahi badu, oraintxe du aukera".

Izena ematea buruntzaldeaikt.eus webgunean egin daiteke. Ikasturtea irailaren 12an hasiko da, eta hauxe izango da antolamendua eta ordutegia:

- 2008-2007an jaiokak:
Asteartea eta osteguna
17:00-18:00.
- 2006an jaiokak:
Astelehena, asteazkena eta ostirala. 17:00-18:00.

- 2005ean jaiokak, 2004ko mutilak:
Astelehena, asteazkena eta ostirala.
18:00-19:15.
- 2003 eta lehenagoko neskak eta 2002 eta lehenagoko mutilak. Eskatu informazioa: 696 506 632 telefonoan (Borja).



Andoaingo txirrindulariak

JUBENILAK, OÑATI

Ekainak 4, larunbata

- 1 Jokin Alberdi (Buruntzazpi)
- 2 Iñigo Altuna (Buruntzazpi)
- 3 Xabier Murgiondo (Ulma)
13. Ander Amonarriz (Andoaingo)

GAZTETXOAK, ZEGAMA

Ekainak 4, larunbata

- Alebinak:
1. Dani Fursenko (Andoaingo)
 2. Igor Barandairan (Ampo)
 3. Markel Galparsoro (Ampo)
 4. Igoien Pikabea (Andoaingo)
 6. Iker Balbas (Andoaingo)
 16. Izaro Zuriarrain (Andoaingo)

Infantilak:

1. Gaizka Aranburu (Ampo)
2. Joanes Telleria (Ampo)
3. Iker Iribar (Oriako-Limousin)
6. Ibai Omeñaka (Andoaingo)
12. Peru Alkain (Andoaingo)
13. Unai Galarza (Andoaingo)
14. Laiene Pikabea (Andoaingo)
19. Maddi Rodriguez (Andoaingo)
20. Unax Azpiroz (Andoaingo)

ASTEBURUAN

Infantil eta alebinak:
Asteasu, 16:30.
Ekainak 11, larunbata

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ "Acantilado".

Larunbata, 11. 19:30, 22:00.
Igandea, 12. 19:30.
Astelehena, 13. 19:30, 22:00.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

■ Antzerki tailerraren emaldia: "Gorputz eta Arimaz".
19:30 3 euro.
Ekainak 19, igandea.

Irakaskuntza

Andoain

■ Ikasturte amaierako festak Andoaingo ikastetxeetan.
La Salle Berrozpe:
Ekainak 11, larunbata.
Aita Larramendi ikastola:
Ekainak 12, igandea.

Azokak

Andoain, Arrate

■ Garagardo Azoka.
Ekainak 16-19.

Farmaziak

Eskualdea

■ Andoain: **Ansa**.
Ondarreta, 8.
Urnietan: **Etzebarria**, Hernani.
Andre kalea, 48.
■ Gauetz: **Urrutia**, Hernani.
Etzeberri, 1. Florida.
Ekainak 11, 12.

Musika

Andoain

■ **Soinuak** akordeoi emanaldia.
18:30 Gazte Lokala.
Ekainak 10, ostirala.
■ **Cafe Quijano** zuzenean.
20:00 30 euro. Bastero.
Ekainak 10, ostirala.
■ **The Capaces, Black Panda**
22:30 Gaztetxea. 5 euro.
Ekainak 11, larunbata.
■ **Andoaingo rock jaialdia:** Elliott Murphy & Band, Balerdi Balerdi,...
18:00 Nafarroa plaza.
Ekainak 18, larunbata.

Jaiak

Andoain

■ **Sanjuanak**.
Ekainak 23-26.

Urnietan, Plazido Muxika

■ Akelarrea.
21:15. Ekainak 23, osteguna.

Erakusketa

Urnietan, Lekaio

■ Argazki Digital Rallyaren argazki erakusketa.
Ekainak 13-24.

Andoain

■ 'XIX. Mendeko Artea eta Mo-da' Urigainen.
Ekainak 9 eta 10.
■ Iker Valleren "Itsasoaren arrastoak" Basteron.
Ekainak 10 eta 11.

Kultur Astea

Andoain

■ **El Miajon de los Castúos** elkartearen eskutik.
Ekainak 9, osteguna:
Patata tortila lehiaketa, eta Etxremadurako bideoak:
Ekainak 10, ostirala:
Mahai jokoen finala:
Ekainak 11, larunbata:
10:00 Miga txapelketa, toca bote txapelketa.
16:00 Koro, dantza eta bertso jaialdia Basteron.
Ekainak 12, igandea:
18:00 Kultur Astearen sari banaketa ekitaldia.

Urnietan

■ **Denda Berriren** eskutik mahai jokoak, dantzaldia, irteerak, bingoa,... Saioak irakurgai 3. orrialdean.
Ekainaren 16tik aurrera.

Sariketa

Urnietan, Lekaio

■ Argazki rallyaren sari banaketa ekitaldia:
19:00 Lekaio.
Ekainak 15, asteazkena.


Ikastaroa

Andoain, AEK

■ **HABEko** azterketak.
Ekainak 27-uztailak 29.
Izen ematea zabalik:
943 591 704.
Diruz lagundutakoak.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Malen Nuño Oiartzabalek 4 urte beteko ditu ekainaren 18an. Egun polita pasa maitia! Muxu handi bat! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Irati Fernandezmaitia lehen urtebetetzean! Muxu goxo pila etxekoan partez!
Eneko, Ane eta Maialen.

ANDOAIN

ZORIONAK



Asierrek ekainaren 14an 7 urte beteko ditu. Zorionak Asier zure lagunaren partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekainaren 5ean pilotari jator batek urteak bete zituen. Muxu handi bat!

Amets. ANDOAIN



www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Urnietan Dantzan, zozketa

Jaialdiari laguntza emateko errifan zenbaki saridunak hauexek dira: 1111 eta 1015. Saria, Karlos Argiñano jatetxe-hotelean das-

tatzeko menua, ostalua eta gosaria 2 pertsonentzat.

Halako bi sari banatuko dituzte, beraz.

Udako ikastaroak Saroben



Gazte Funky ikastaroa eskainiko dute uztailean, Saroben.

Uztailean zehar. Izena emateko Saroben bertan. 943 00 80 42.

Gimnasia Hipopresiboa
Asteartea, osteguna
11:00-11:30 / 11:45-12:15

Yoga
Asteartea, osteguna
9:30-11:30.

Gazte Funky
Astelohen, asteazkena, ostirala
10:00-11:00.
11:00-12:00.

Pilates
Asteartea, osteguna
09:15-10:15 Jarraipena
10:15-11:15 Hastapena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Aiurri

Datorren Aiurri astekarian gehigarri berezia: Elkarrizketak, Albisteak, Egitaraua, ...

Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak